



Lehendakaria/Presidente

Juan Ramón Ciprián Ansoalde

Kidea/Vocal

Imanol Zubizarreta Arteche

Idazkari-Kidea/Vocal Secretaria

María Yeregui Hernández

Resolución 18/2022 ebazpena

Recurso 13/2022 errekurtsua

Kontratazio Mahaiaren 2022ko uztailaren 15eko erabakiaren aurka, zeinaren bidez “Donostiako Aldakonea eta Txara 2 zentroetako adinekoen egoitzaren eta beste zerbitzu batzuen” 1. sortaren (2022/31 esp.) kontratazio prozeduratik kanpo utzi baitzen GIZATZEN SA enpresa, kontratazio arloko errekurtsu berezia jarri zuen enpresa horrek eta, errekurtsu horri dagokionez, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak, datako egunean egindako bileran eta goian adierazitako kideak bertan direla, honako erabaki hau hartu du aho batez:

En el recurso especial en materia de contratación interpuesto por GIZATZEN, S.A. contra el acuerdo de la mesa de contratación de 15 de julio de 2022 por el que se la excluye del procedimiento de contratación del lote 1 del “servicio de residencia para personas mayores y otros servicios en los centros Aldakonea y Txara 2 de San Sebastián” (exp. 2022/31), el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales, en sesión celebrada en el día de la fecha, con la asistencia de los miembros que arriba se expresan, ha adoptado por unanimidad el siguiente acuerdo.

AURREKARIAK

LEHENENGO.- Ebazpen honen idazpuruan aipatutako erabakiaren aurka, GIZATZEN SA enpresak kontratazio arloko errekurtsu berezia jarri zuen, Auzitegi honen erregistroan 2022ko uztailaren 26an aurkeztutako idazki baten bidez. Errekurtso hori 13/2022 zenbakiarekin erregistratu zen.

BIGARREN.- Biharamunean Auzitegiak errekurtsua bidali zion Gizarte Politiketako Departamentuari, eta 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuenak (SPKL), 56.2 artikuluan xedatutakoarekin bat, kontratazio espedientea eta zegokion txostena eskatu zizkion. Hori guztia abuztuaren 9an sartu zen Auzitegiaren erregistroan.

ANTECEDENTES DE HECHO

PRIMERO.- Mediante escrito presentado en el registro de este Tribunal el día 26 de julio de 2022, GIZATZEN, S.A. interpuso recurso especial en materia de contratación contra el acuerdo citado en el encabezamiento de esta resolución, recurso que quedó registrado con el número 13/2022.

SEGUNDO.- Al día siguiente el Tribunal remitió el recurso al Departamento de Políticas Sociales y le solicitó, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 56.2 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público (LCSP), el expediente de contratación y el correspondiente informe. Todo lo cual tuvo entrada en el registro del Tribunal el día 9 de agosto.



HIRUGARRENA.- SPKLren 56.3 artikulua betez, errekurtsoa bidali zizaion beste lizitatuileari BIHARKO GIPUZKOA SLri, bost egun balioduneko epean alegazioak aurkez zitzan. Auzitegiko erregistroan abuztuaren 16an sartutako idazki baten bidez aurkeztu zituen.

TERCERO.- En cumplimiento del artículo 56.3 LCSP, se dio traslado del recurso al otro licitador, BIHARKO GIPUZKOA, S.L., para que en el plazo de cinco días hábiles pudiera formular alegaciones. Las presentó mediante escrito que tuvo entrada en el registro del Tribunal el día 16 de agosto.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Errekurtsoaren onargarritasuna

Admisibilidad del recurso

LEHENENGO.- Xedea.

PRIMERO.- Objeto.

Lizitatuile bat zerbitzu kontratu baten lote baten adjudikazio prozeduratik kanpo uzteko erabakiaren aurka jarri da errekurtsoa. Zerbitzu kontratu horren balio zenbatetsia 5.640.622,04 eurokoa da.

El recurso se interpone contra la exclusión de un licitador del procedimiento de adjudicación de uno de los lotes de un contrato de servicios, que tiene un valor estimado de 5.640.622,04 euros.

Beraz, errekurritutako egintzaren aurka kontratazio arloko errekurtso berezi bat aurkez daiteke, hala xedatzen baitu SPKLren 44. artikulua, 1 a) eta 2 b) apartatueta.

Por lo tanto, el acto recurrido es susceptible de recurso especial en materia de contratación por así disponerlo los apartados 1 a) y 2 b) del artículo 44 LCSP.

BIGARREN.- Eskumena.

SEGUNDO.- Competencia.

Errekurtso hau ebazteko eskumena Auzitegi honi dagokio, hala agintzen baitu 24/2010 Foru Dekretuak, 2010eko irailaren 28koak, Kontratu Errekurtsoen Foru Auzitegi Administratiboa sortu eta arautzen duenak, 2.1 artikuluan.

La competencia para conocer del recurso corresponde a este Tribunal, al que le viene atribuida por el artículo 2.1 del Decreto Foral 24/2010, de 28 de septiembre, de creación y regulación del Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales.

HIRUGARREN.- Epea.

TERCERO.- Plazo.

Errekurtsoa SPKLren 50.1.c) artikuluan aurreikusitako hamabost egun balioduneko epearen barruan aurkeztu da, kontuan hartuta errekurritako akordioa 2022ko uztailaren 18an jakinarazi zela.

El recurso se ha interpuesto dentro del plazo de quince días hábiles previsto en el artículo 50.1.c) LCSP, si se tiene en cuenta que el acuerdo impugnado se notificó el 18 de julio de 2022.

LAUGARREN.- Legitimazioa.

CUARTO.- Legitimación.

Errekurtsoa jartzeko legitimazioa du errekurtsogileak, SPKLren 48. artikuluan xedatutakoaren arabera, berak parte hartu duen lizitazio batetik kanpo uztea aurkaratzen baitu.

La recurrente está legitimada para interponer el recurso, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 48 LCSP, dado que impugna su exclusión de una licitación a la que ha concurrido.



Auziaren mamia

BOSGARREN.- Errekurritutako jarduera

Diputatuen Kontseiluak 2022ko maiatzaren 17an hartutako erabakiaren bidez, Donostiako Aldakonea eta Txara 2 zentroetan adineko pertsonentzako egoitza eta bestelako zerbitzuak kontratatzekeo espedientea onartu zuen, non administrazio klausula partikularren agiria (AKPA) eta preskripzio teknikoaren agiria (PTA) sartzen diren, eta, halaber, xedatu zuen kontratua adjudikatzeko prozedura irekia hasteko.

AKPAren ezaugarrien taulako 3. puntuan ezarritakoaren arabera, kontratua 2 sortatan dago banatuta:

1. sorta: Aldakonea zentroa.

2. sorta: Txara 2 zentroa.

Kaudimen ekonomiko eta finantzario, eta tekniko edo profesionalari buruzko betekizunak AKPAren ezaugarrien taulako 14. puntuko 2. eta 3. ataletan ezarritakoak dira:

“2) KAUDIMEN EKONOMIKOA ETA FINANTZARIOA

Honela egiaztatuko da:

- Urteko negozio bolumena azken hiru urteetan. Merkataritzako Erregistroan edo dagokion erregistro ofizialean aurkeztutako urteko kontuen bidez egiaztatuko da. Kontuak erregistro ofizialetan aurkeztera behartuta ez dauden enpresaburuek, egiaztatzekeo ordezkio bide gisa, behar bezala legezkatutako kontabilitate liburuak aurkeztu ahal izango dituzte.

Aski izango da bolumen handieneko urteko negozio zifra zenbateko hau baino txikiagoa izatea, sorten arabera:

1. sorta: Aldakonea zentroa: 3.000.000 euro.

2. sorta: Txara 2 zentroa: 3.000.000 euro.

3) KAUDIMEN TEKNIKOA EDO PROFESIONALA

Honela egiaztatuko da:

Fondo del asunto

QUINTO.- La actuación recurrida.

Por acuerdo de 17 de mayo de 2022 el Consejo de Gobierno Foral aprobó el expediente para la contratación del servicio de residencia para personas mayores y otros servicios en los centros Aldakonea y Txara 2 de San Sebastián, que incluye los pliegos de cláusulas administrativas particulares (en adelante PCAP) y de prescripciones técnicas (en adelante PPT), y dispuso la apertura del procedimiento de licitación abierto para la adjudicación del contrato.

Conforme a lo establecido en el punto 3 del cuadro de características del PCAP, el contrato se divide en 2 lotes:

Lote 1: Centro de Aldakonea.

Lote 2: Centro de Txara 2.

Los requisitos de solvencia económica y financiera, y técnica o profesional, son los exigidos en los apartados 2 y 3 del punto 14 del cuadro de características del PCAP:

“2) SOLVENCIA ECONÓMICA Y FINANCIERA

Se acreditará por:

- Volumen anual de negocios durante los últimos tres años. Se acreditará mediante cuentas anuales presentadas en el Registro Mercantil o en el Registro oficial que corresponda. Los empresarios no obligados a presentar las cuentas en Registros oficiales podrán aportar, como medio alternativo de acreditación, los libros de contabilidad debidamente legalizados.

Se considerará suficiente que la cifra de negocios del año de mayor volumen sea al menos el de la siguiente cantidad, según lotes:

Lote 1: Centro de Aldakonea: 3.000.000 euros.

Lote 2: Centro de Txara 2: 3.000.000 euros.

3) SOLVENCIA TÉCNICA O PROFESIONAL

Se acreditará de la siguiente forma:



- Azken hiru urteetan emandako zerbitzu nagusien zerrenda, zeinak barne hartuko baititu zenbatekoa, datak eta zerbitzu horien hartzaile izan den entitate kontratatzailea, publikoa nahiz pribatua.

- o Enpresek egiaztatuko dute (organo eskudunak emandako egiaztapen edo bisatu baten bidez, hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean; edo, hartzailea subjektu pribatu bat denean, hark emandako egiaztapen baten bidez edo, ziurtagiririk ezean, enpresaburuak egindako deklarazio baten bidez) azken hiru urteetan kontratuaren xedearena bezalakoa edo antzekoa den lan bat egin izana eta lan horren gauzatutako zenbatekoa hau dela sorten arabera:

1. sorta: Aldakonea zentroa: 1.500.000 euro.

2. sorta: Txara 2 zentroa: 1.500.000 euro”.

Bi enpresak aurkeztu zuten eskaintza: BIHARKO GIPUZKOA SL enpresak 1. eta 2. sortetara eta GIZATZEN SA enpresak 1. sortara.

2022ko uztailaren 1ean, kontratazio mahaiak BAT zenbakiko fitxategi elektronikoak ireki zituen, aurretiko baldintzak betetzen zirela egiaztatzeko dokumentazioari buruzkoak, eta dokumentazio hori kalifikatzeari ekin zion.

GIZATZEN SA enpresak kaudimena lagatzeko konpromiso bat aurkeztu zuen, OHL SERVICIOS INGESAN SA enpresarena. Hartara, kontratua behar bezala gauzatzeko beharrezkoak ziren baliabide material eta pertsonal guztiak haren esku jartzeko konpromisoa hartzen zuen enpresak, baldin eta adjudikaziodun izango balitz, SPKLren 75. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Hala, kaudimen ekonomikoa egiaztatzeko, OHL SERVICIOS INGESAN SAREN 2020ko ekitaldiko urteko kontuak aurkeztu zituen GIZATZEN SAK, kudeaketa eta auditorerantz txostenekin batera.

Eta, gaitasun teknikoa egiaztatzeko, azken hiru urteetan egin dituen edo arribidean dituen lanen zerrenda hau aurkeztu zuen GIZATZEN SAK:

- Una relación de los principales servicios realizados en los últimos tres años que incluya importe, fechas y entidad contratante, pública o privada, a quien iban destinados los mismos.

- o Las empresas deberán acreditar, mediante certificados expedidos o visados por el órgano competente, cuando el destinatario sea una entidad del sector público, o cuando el destinatario sea un sujeto privado, mediante un certificado expedido por éste o, a falta de este certificado, mediante una declaración del propio empresario, haber ejecutado en los últimos tres años al menos un trabajo cuyo objeto sea similar al del presente contrato y cuyo importe sea al menos el de la siguiente cantidades, según lotes:

Lote 1: Centro de Aldakonea: 1.500.000 euros.

Lote 2: Centro de Txara 2: 1.500.000 euros”.

Presentaron oferta dos empresas: BIHARKO GIPUZKOA, S.L. a los lotes 1 y 2 y GIZATZEN, S.A. al lote 1.

El día 1 de julio de 2022 la mesa de contratación procedió a la apertura de los archivos electrónicos nº UNO relativos a la documentación acreditativa del cumplimiento de los requisitos previos, y a la calificación de dicha documentación.

La empresa GIZATZEN S.A. presentó un compromiso de cesión de solvencia de la empresa OHL SERVICIOS INGESAN S.A. por el que ésta se comprometía a poner a disposición de aquélla todos los medios materiales y personales necesarios para la correcta ejecución del contrato para el caso de que resultara adjudicataria, de conformidad con lo dispuesto por el artículo 75 LCSP.

Así, para acreditar la solvencia económica, GIZATZEN S.A. presentó las cuentas anuales del ejercicio 2020 de OHL SERVICIOS INGESAN S.A., acompañadas de los informes de gestión y de auditoría.

Y para acreditar la solvencia técnica, GIZATZEN S.A. aportó la siguiente relación de trabajos ejecutados o en ejecución en el curso de los últimos tres años:



Denominación y objeto del contrato	Importe (IVA excluido)	Fecha de inicio de la ejecución	Duración	Destinatario
Gestión del servicio de la residencia municipal para personas mayores de Chillón	451.997,23€	1/01/2020-31/12/2020	12 meses	Ayto. de Chillón
Viviendas con servicios para gente mayor: Marina, Cibeles y vía Favencia I	277.588,9€	1/01/2020-31/12/2020	12 meses	Ayto. de Barcelona
Apartamentos tutelados para personas mayores Pau Casals	264.305,22€	1/01/2020-31/12/2020	12 meses	Ayto. de Barcelona
Gestión de las viviendas para personas mayores de Montnegre y Torre Júlia	320.570,24€	1/01/2020-31/01/2020	12 meses	Ayto. de Barcelona
Gestión de las viviendas con servicios para personas mayores de las promociones de Glories I y II.	249.547,2€	1/01/2020-31/12/2020	12 meses	Ayto. de Barcelona

Era berean, kontratu horiei buruzko ziurtagiri hauek aurkeztu zituen, zeinetan zerrendan adierazitakoez bestelako zenbateko eta iraupen batzuk ageri diren:

- Chillóngo Udalaren ziurtagiria, 2021eko urtarrilaren 3koa. Hartan adierazten da OHL SERVICIOS INGESAN enpresak (% 80) eta beste batek (% 20) osatutako UTE RESIDENCIA CHILLÓN dela adinekoentzako Chillóngo udal egoitzaren zerbitzu publikoa kudeatzeko kontratuaren adjudikazioduna. Kontratua 2014ko abuztuaren leian hasi zen gauzatzen, eta 2021eko urtarrilean indarrean jarraitzen zuen. Adjudikazioaren urteko zenbatekoa 304.799,82 eurokoa zen, eta 1.051.648 euroko zenbatekoa zegoen exekutaturik.

- Bartzelonako Udaleko Gizarte Zerbitzuen Udal Institutuaren ziurtagiri sinatugabea eta txostena, 2021eko irailaren 8koa. Hartan adierazten da UTE ACCIÓ SOCIAL 3, OHL SERVICIOS INGESAN SAUK eta beste elkarte batek osatutako ABEEa (partaidetza ehunekorik zehaztu gabe), egoki ari zela betetzen adinekoentzako zerbitzuak dituzten etxebizitza hauek kudeatzeko kontratua: Marina, Cibeles eta Vía Favencia I. Hasiera batean, kontratuaren iraupena 2018ko urtarriletik 2019ko abendura bitartekoa zen, eta adjudikatutako zenbatekoa 813.337,34 eurokoa

Acompañó asimismo los siguientes certificados relativos a dichos contratos, en los que se indica un importe y una duración distintos de los indicados en la relación:

- Certificado del Ayuntamiento de Chillón de 3 de enero de 2021 en el que se hace constar que la UTE RESIDENCIA CHILLÓN, formada por las empresas OHL SERVICIOS INGESAN (80%) y otra (20%), es adjudicataria del contrato de gestión del servicio público de la residencia municipal para personas mayores de Chillón, cuya ejecución se inició el 1 de agosto de 2014 y seguía vigente en enero de 2021, con un importe de adjudicación de 304.799,82 euros/año y un importe ejecutado de 1.051.648 euros.

- Certificado sin firma e informe del Instituto Municipal de Servicios Sociales del Ayuntamiento de Barcelona de 8 de septiembre de 2021, en el que se señala que la UTE ACCIÓ SOCIAL 3, formada por OHL SERVICIOS INGESAN SAU y otra asociación, cuyos porcentajes de participación en la UTE no indica, estaba prestando de forma satisfactoria el contrato de gestión de viviendas con servicios para gente mayor: Marina, Cibeles y Vía Favencia I, con una duración inicial de enero de 2018 a diciembre de 2019, por un importe



(BEZa barne); ondoren, 2021eko abendura arte luzatu zen, 770.026,87 euroko zenbatekoan (BEZa barne).

- Bartzelonako Udaleko Gizarte Zerbitzuen Udal Institutuaren ziurtagiria eta txostena, 2021eko apirilaren 22koa. Hartan adierazten da UTE EQUIPMENT PAU CASALS (ez ditu partaideak eta partaidetza ehunekoak zehazten) egoki ari zela betetzen adinekoentzako tutoretzapeko Pau Casals apartamentuak kudeatzeko kontratua, 2018an, 2019an eta 2020an, eta guztira 988.284,88 euro zituen likidatuak (BEZik gabe) urte horietan.

- Bartzelonako Udaleko Gizarte Zerbitzuen Udal Institutuaren exekuzio onaren ziurtagiria eta txostena, biak ala biak sinatu gabe, 2021eko irailaren 8koak. Haietan adierazten da UTE MONTNEGRE-TORRE JÚLIA (ez ditu partaideak eta partaidetza ehunekoak zehazten, ezta ere) 2017tik ari zela adin nagusikoentzako zerbitzuak dituzten Montnegreko eta Torre Júliako etxebizitzak kudeatzen, eta 2019ko urtarrilaren 31tik 2021eko martxoaren 31ra 772.748,84 euro zituen fakturatuak (BEZa barne).

- Bartzelonako Udaleko Gizarte Zerbitzuen Udal Institutuaren exekuzio onaren ziurtagiria eta txostena, 2021eko irailaren 8koa eta 9koa. Haietan adierazten da UTE GLÒRIES I y II (ez ditu partaideak eta partaidetza ehunekoak zehazten ere ez) 2017tik ari dela adinekoentzako zerbitzuak dituzten etxebizitzak kudeatzen Glòries I eta II sustapenetan, eta 2019ko urtarrilaren 31tik 2021eko martxoaren 31ra bitarte 601.544,43 euro fakturatu zituela guztira (BEZa barne).

Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, kontratazio mahaiak erabaki zuen eskatutako kaudimen ekonomikoa eta teknikoa betetzen zuen justifikatzeko eskatzea GIZATZEN SARI; izan ere, aurkeztutako OHL SERVICIOS INGESAN

adjudicado de 813.337,34 euros (IVA incluido), y una prórroga por importe de 770.026,87 euros (IVA incluido) hasta diciembre de 2021.

- Certificado e informe del Instituto Municipal de Servicios Sociales del Ayuntamiento de Barcelona de 22 de abril de 2021, en el que se señala que la UTE EQUIPMENT PAU CASALS, cuya formación y porcentajes de integración de empresas no determina, estaba prestando de manera satisfactoria el contrato de gestión de apartamentos tutelados para personas mayores Pau Casals, en las anualidades 2018, 2019 y 2020, en las que había liquidado un importe total de 988.284,88 euros (IVA excluido).

- Certificado e informe de buena ejecución, ambos sin firma, del Instituto Municipal de Servicios Sociales del Ayuntamiento de Barcelona, de 8 de septiembre de 2021, en los que se señala que la UTE MONTNEGRE-TORRE JÚLIA, cuya formación y porcentajes de integración tampoco determina, estaba prestando la gestión de viviendas con servicios para personas mayores de edad de Montnegre y Torre Júlia desde 2017, y que desde el 31 de enero de 2019 hasta el 31 de marzo de 2021 había facturado el importe de 772.748,84 euros (IVA incluido).

- Certificado e informe de buena ejecución del Instituto Municipal de Servicios Sociales del Ayuntamiento de Barcelona, de fechas 8 y 9 de septiembre de 2021, en los que se señala que la UTE GLÓRIES I y II, cuya formación y porcentaje de integración tampoco determina, estaba realizando la gestión de viviendas con servicios para personas mayores de edad de las promociones Glòries I y II desde 2017, y que desde el 31 de enero de 2019 hasta el 31 de marzo de 2021 había facturado un importe total de 601.544,43 euros (IVA incluido).

Tras el análisis de la documentación presentada, la mesa de contratación acordó requerir a GIZATZEN S.A. para que justificara el cumplimiento de la solvencia económica y técnica exigida, porque la documentación que



Saren dokumentazioak ez zuen justifikatzen erakunde horrek Merkataritza Erregistroan kontuak aurkeztu zituenik, ez eta azken hiru urteetan antzeko xedeko lanik egin zuenik gutxienez 1.500.000 euroko zenbatekoan ere, zeren aurkeztutako bost kontratuetatik bat bera ere ez baitzen iristen zenbateko horretara, eta amaitu gabe zeuden. Gainera, ez zegoen jasota zein zen OHL SERVICIOS INGESAN Saren partaidetza ehunekoa ABEEan.

Errekerimendu horri erantzunez, OHL SERVICIOS INGESAN Saren kontuen Merkataritza Erregistroko inskripzioa aurkeztu zuen GIZATZEN SAK, bai eta enpresa horren eta Madrilgo Erkidegoaren artean sinatutako bi kontratu ere, aribidekoak:

- Adineko mendekoei arreta emateko Madrilgo Mirasierra zentroa (egoitza eta eguneko zentroa) kudeatzeko kontratua, 2021eko ekainaren 28an sinatua. Hasiera data berrira egokitutako adjudikazio prezioa 11.171.995,38 eurokoa zen (BEZa barne), eta exekuzio epea 2021eko uztailaren 1etik 2023ko irailaren 30era bitartekoa.

- Adineko mendekoei arreta emateko Madrilgo Villaverde Alzheimer zentroa (egoitza eta eguneko zentroa) kudeatzeko kontratua, 2022ko apirilaren 25ean sinatua. Hasiera data berrira egokitutako adjudikazio prezioa 4.905.632,83 eurokoa zen (BEZa barne), eta exekuzio epea 2022ko maiatzaren 1etik 2024ko azaroaren 8ra bitartekoa.

Aurkeztutako dokumentazio berria aztertu ondoren, kontratazio mahaiak, 2022ko uztailaren 15eko bileran, errekurtsogilea prozeduratik kanpo uztea erabaki zuen, eskatutako kaudimen tekniko edo profesionaleko baldintzak ez betetzeagatik, artean amaitu gabe zeudelako errekerimenduaren ondotik aurkeztutako bi kontratu berriak.

Uztailaren 18an jakinarazi zitzaion erabakia GIZATZEN SARI, eta haren aurka jarri du

presentó de la entidad OHL SERVICIOS INGESAN, S.A. no justificaba la presentación de las cuentas de dicha entidad ante el Registro Mercantil, ni tampoco que hubiese realizado en los últimos tres años un trabajo de similar objeto e importe mínimo de 1.500.000 euros, pues ninguno de los cinco contratos presentados alcanzaba ese importe, ni estaban finalizados, además de que no constaba el porcentaje de integración en la UTE de la entidad OHL SERVICIOS INGESAN, S.A.

En respuesta a dicho requerimiento GIZATZEN S.A. presentó la inscripción en el Registro Mercantil de las cuentas de OHL SERVICIOS INGESAN S.A. y dos contratos suscritos entre esa empresa y la Comunidad de Madrid, que se hallaban en ejecución:

- El contrato de gestión del centro de atención a personas mayores dependientes (residencia y centro de día) Mirasierra de Madrid, firmado el 28 de junio de 2021, que tenía un precio de adjudicación, adecuado a la nueva fecha de inicio, de 11.171.995,38 euros (IVA incluido), y un plazo de ejecución del 1 de julio de 2021 al 30 de septiembre de 2023.

- El contrato de gestión del centro de atención a personas mayores dependientes (residencia y centro de día) Villaverde Alzheimer de Madrid, firmado el 25 de abril de 2022, con un precio de adjudicación, adecuado a la nueva fecha de inicio, de 4.905.632,83 euros (IVA incluido), y un plazo de ejecución del 1 de mayo de 2022 al 8 de noviembre de 2024.

Tras analizar la nueva documentación presentada, la mesa de contratación, en reunión de 15 de julio de 2022, acordó excluir del procedimiento a la recurrente por no cumplir los requisitos de solvencia técnica o profesional exigidos, debido a que ninguno de los dos nuevos contratos que aportó tras el requerimiento habían finalizado.

Frente al citado acuerdo, que le fue notificado el 18 de julio, GIZATZEN, S.A. ha interpuesto el



errekurtso hau.

SEIGARREN.- Eztabaida.

Errekurtsogileak alegatu duenez, kaudimen tekniko edo profesionalaren beharkizuna betetzat jotzeko, ezin da eskatu antzeko zerbitzu baten kontratu epea amaituta egotea; aitzitik, segidako traktua duten kontratuetan, kasu honetan bezala, aski litzateke gutxienez zerbitzuaren urtealdi bat ematea eskatutako zenbatekoan, edo eskatutako zerbitzua emateko atalase ekonomikora iristea, zerbitzua guztiz amaituta eduki beharrik gabe, ez baitago funtsezko alderik urte batetik bestera, obra kontratu batean ez bezala, non amaitu arte ezin baita jakin obra behar bezala gauzatu den ala ez.

Interpretazio horren arabera, uste du kaudimen teknikoa egiaztatuta geratu dela Madrilgo Erkidegoak 2021ean eta 2022an OHL SERVICIOS INGESAN SARI adjudikatutako bi kudeaketa kontratuak ekarri; hau da, adineko mendekoei arreta emateko Mirasierra eta Villaverde Alzheimer zentronak (egoitzak eta eguneko zentroak). Izan ere, horien adjudikazio prezioa, irauten duten hiru urtealdietarako (14.895.993,83 eta 5.834.893,76 euro, BEZa barne), askoz handiagoa da agirietan eskatutako gutxieneko zenbatekoa baino (1.500.000 euro) eta, gainera, lehen kontratuan 2021eko eta 2022ko urtealdietan emandako zerbitzuen prezioa ere (2.387.178,50 eta 4.774.357 euro, BEZa kanpo) kasu honetan eskatutako kaudimena baino handiagoa da.

Horregatik, uste du baztertzeko erabakia ez datorrela bat administrazio klausula partikularren agirian eskatutako kaudimen tekniko edo profesionaleko baldintzen literalatasunarekin, eta eskatzen du deusezta dadila berau baztertzeko erabakia eta ezar dadila jarduketan atzeraeragina, bere eskaintza onartu eta eskaintzen sailkapen berria egin dadin.

Kontratazio organoak errekurtsoa ezesteko proposatzen du, zeren lizitatzailerek azken hiru urteetan horrelako zerbitzuak eginak izan behar

presente recurso.

SEXTO.- La controversia.

Alega la recurrente que para tener por cumplido el requisito de solvencia técnica o profesional no cabe exigir la finalización del plazo contractual de un servicio similar, sino que en contratos de tracto sucesivo, como el presente, dado que no hay diferencias sustanciales de una anualidad a otra, bastaría que se hubiera prestado, al menos, una anualidad del servicio por el importe exigido, o que se hubiera alcanzado el umbral económico de prestación del servicio requerido, sin tener que haberlo finalizado en su totalidad, a diferencia de un contrato de obras, en el que no puede saberse si la obra está correctamente ejecutada hasta que se produzca su finalización.

Según esa interpretación, considera que ha acreditado la solvencia técnica con la aportación de dos contratos adjudicados a OHL SERVICIOS INGESAN, S.A. por la Comunidad de Madrid en 2021 y 2022 para la gestión de los centros de atención a personas mayores dependientes (residencia y centro de día) Mirasierra y Villaverde Alzheimer de Madrid, porque el precio de su adjudicación para las tres anualidades de su duración (14.895.993,83 y 5.834.893,76 euros, IVA incluido) es muy superior a la cantidad mínima exigida en los pliegos (1.500.000 euros), y, además, el precio por los servicios prestados en el primer contrato en las anualidades de 2021 y 2022 (2.387.178,50 y 4.774.357 euros, IVA no incluido), es también superior a la solvencia exigida en este caso.

Por ello considera que el acuerdo de exclusión contradice la literalidad de los requisitos de solvencia técnica o profesional exigidos en el PCAP, y solicita que se anule la decisión de excluirla y se acuerde la retroacción de las actuaciones, con la finalidad de que se admita su oferta y se proceda a una nueva clasificación de las ofertas.

El órgano de contratación propone desestimar el recurso porque el punto 14.3 del cuadro de características del PCAP exige que las licitadoras



dituztela eskatzen baitu AKPAko ezaugarri taulak 14.3 puntuan, SPKLren 90.1.a) artikuluan aurreikusitakoaren arabera (egindako lanei buruzkoa da artikulua hori), eta uste du apartatu horren literaltasunak ez duela interpretaziorako biderik ematen, argi eta garbi adierazten duelako zein den kaudimena egiaztatze eskatzen den gutxieneko atalasea eta ez duelako onartzen errekurtsogileak defendatutako irizpidea; hau da, antzeko kontratu batean gutxienez urtebeteko zerbitzua eman izana. Ez du ematen aukerarik, ezta ere, kaudimena amaitu gabeko kontratu batean fakturatutako zenbatekoaren arabera egiaztatze.

Hari beretik, BIHARKO GIPUZKOA SLk ere eskatu du errekurtsioa ezets dadila, agirietan adierazitakoak lizitatuak lotesten baititu eta haren hitzez hitzeko edukia nagusitzen baita. Gauzak horrela, aurreko hiru urteetan lanak gauzatuak izatea eskatzen du, eta, beraz, ez da nahikoa gauzatu gabeko kontratu bat adjudikatua izatea; izan ere, kontratua administrazio kontratatzailearen nahierara gauzatu denean besterik ezin zaio iritzi kontratu hori gauzatzean lortutako esperientzia aski dela kaudimen teknikoa egiaztatze.

ZAZPIGARREN.- Auzitegiaren judizioa.

Planteatu den auzi juridikoa da ea zuzenbidearen arabera den baldintza agirietan ezarritako kaudimen teknikoko baldintzak ez betetzeagatik errekurtsogilea baztertzeko erabakia.

Kaudimen ekonomikoari buruzko gaiak ez dira eztabaidagai, departamentu kontratatzaileak zuzendutzat jotzen baititu; hortaz, kaudimen teknikoa egiaztatuta edo egiaztatu gabe dagoen erabakitzea da auziaren ardatz bakarra.

SPKLren 74. artikuluan arabera, sektore publikoarekin kontratuak egiteko, enpresaburuek egiaztatu behar dute kontratazio organoak zehazten dituen gutxieneko baldintzak betetzen dituztela kaudimen ekonomiko eta finantzarioari eta tekniko edo profesionalari dagokienez

hayan realizado ese tipo de servicios en los últimos tres años, de acuerdo con lo previsto en el artículo 90.1.a) LCSP, que se refiere a trabajos realizados y, por tanto, finalizados y ejecutados, y considera que la literalidad del citado apartado no da lugar a interpretaciones, pues enuncia de forma clara y precisa el umbral mínimo exigido para la acreditación de la solvencia y no admite el criterio sostenido por la recurrente de que se haya prestado al menos una anualidad de un contrato similar, ni establece la posibilidad de acreditar la solvencia en función del importe facturado de un contrato no finalizado.

En similar sentido, BIHARKO GIPUZKOA, S.L. también solicita que se proceda a desestimar el recurso porque lo señalado en los pliegos es vinculante para los licitadores y prevalece su tenor literal, que exige haber ejecutado los trabajos durante los tres años anteriores, no bastando, por tanto, tener un contrato adjudicado pero no ejecutado, pues solo cuando ha sido ejecutado a satisfacción de la Administración contratante cabe considerar que la experiencia obtenida en la ejecución de ese contrato permite acreditar la solvencia técnica.

SÉPTIMO.- El juicio del Tribunal.

La cuestión jurídica planteada versa sobre la conformidad a Derecho del acuerdo de exclusión de la recurrente por razón del incumplimiento de las condiciones de solvencia técnica establecidas en los pliegos.

Las cuestiones referidas a la solvencia económica, considerándose subsanadas por el departamento contratante, no son controvertidas, centrándose, por tanto, el asunto de forma exclusiva en la acreditación o no de la solvencia técnica.

Según el artículo 74 LCSP, para celebrar contratos con el sector público los empresarios deberán acreditar estar en posesión de las condiciones mínimas de solvencia económica y financiera y profesional o técnica que se determinen por el órgano de contratación



(1. apartatua).

Enpresaburuak bete behar dituen gutxieneko kaudimen baldintzak eta horiek egiaztatzeko behar den dokumentazioa lizitazio iragarkian eta kontratuaren agirian adierazi behar dira, eta kontratuaren xedeari lotuta egon eta harekiko proportzionalak izan behar dute (2. apartatua).

Kaudimen teknikoa, beraz, botere adjudikatzaileekin kontratatu ahal izateko betekizun edo baldintza gisa ezarri da, lizitatzailerak eskatzen den prestazioa gauzatzeko egokia dela bermatzeko.

Hala azaltzen du 2014/24 (EB) Zuzentarauak, Europako Parlamentuarenak eta Kontseiluarenak, 2014ko otsailaren 26koak, kontratazio publikoari buruzkoak, 58.4 artikuluan:

«Gaitasun tekniko eta profesionalari dagokionez, botere adjudikatzaileek baldintzak ezarri ahal izango dituzte, ziurtatzeko ezen operadore ekonomikoek beharrezko diren eskarmentua, giza baliabideak eta baliabide teknikoak dituztela, kontratua kalitate maila egokiarekin gauzatzeko.

Botere adjudikatzaileek eskatu ahal izango dute, bereziki, operadore ekonomikoek nahikoa eskarmentu dutela frogatuta egotea, iraganean gauzatutako kontratuen erreferentzia egokien bidez».

Horren arabera, SPKLren 90.1.a) artikulua xedatzen du zerbitzu kontratuetan enpresaburuaren kaudimen teknikoa edo profesionala balioesteko kontuan hartu behar direla haien ezagutza teknikoak, eraginkortasuna, esperientzia eta fidagarritasuna, eta, kontratuaren xedeari arabera, xede horren izaera bera edo antzekoa duten zerbitzu edo lan nagusien zerrenda bat erabili ahal izango dela horiek egiaztatzeko, kontratazio organoak aukeran beste modu batzuen artean. Zerrenda horretan bildutako zerbitzu edo lanak gehienez ere azken hiru urteetan eginak izan behar dira, eta haien zenbatekoa, data eta hartzailea publikoa edo pribatua den adieraziko da.

Artikulu horrek gaineratzen duenez, kontratazio organoaren mendeko zerbitzuek hala eskatzen dutenean, organo eskudunak emandako edo ikus-

(apartado 1).

Los requisitos mínimos de solvencia que deba reunir el empresario y la documentación requerida para su acreditación se han de indicar en el anuncio de licitación y en el pliego del contrato, debiendo estar vinculados a su objeto y ser proporcionales al mismo (apartado 2).

La solvencia técnica se conforma, así, como un requisito o condición para poder contratar con los distintos poderes adjudicadores, con el objetivo de garantizar la idoneidad del licitador para la ejecución de la prestación demandada.

Así lo explicita el artículo 58.4 de la Directiva 2014/24/UE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 26 de febrero de 2014, sobre contratación pública, a cuyo tenor:

“Con respecto a la capacidad técnica y profesional, los poderes adjudicadores podrán imponer requisitos para asegurar que los operadores económicos poseen la experiencia y los recursos humanos y técnicos necesarios para ejecutar el contrato con un nivel adecuado de calidad.

Los poderes adjudicadores podrán exigir, en particular, que los operadores económicos tengan un nivel suficiente de experiencia demostrada mediante referencias adecuadas de contratos ejecutados en el pasado”.

De conformidad con ello, el artículo 90.1.a) LCSP establece que en los contratos de servicios, como el presente, la solvencia técnica o profesional de los empresarios deberá apreciarse teniendo en cuenta sus conocimientos técnicos, eficacia, experiencia y fiabilidad, lo que deberá acreditarse, según el objeto del contrato, entre otros medios a elección del órgano de contratación, por una relación de los principales servicios o trabajos realizados de igual o similar naturaleza que los que constituyen el objeto del contrato en el curso de, como máximo, los tres últimos años, en la que se indique el importe, la fecha y el destinatario público o privado de los mismos.

Ese precepto añade que cuando le sea requerido por los servicios dependientes del órgano de contratación, los servicios o trabajos efectuados



onetsitako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira egindako zerbitzuak edo lanak, hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean.

Horretan oinarrituta, administrazio klausula berezien agiriko ezaugarri taularen 14.3 puntuaren arabera, honela egiaztatuko da kaudimen tekniko edo profesionala:

- Azken hiru urteetan emandako zerbitzu nagusien zerrenda, zeinak barne hartuko baititu zenbatekoa, datak eta zerbitzu horien hartzaile izan den entitate kontratatzailea, publikoa nahiz pribatua.

- *Enpresek egiaztatuko dute (organo eskudunak emandako egiaztigiri edo bisatu baten bidez, hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean; edo, hartzailea subjektu pribatu bat denean, hark emandako egiaztigiri baten bidez edo, ziurtagiririk ezean, enpresaburuak egindako deklarazio baten bidez) azken hiru urtean kontratuaren xedearena bezalakoa edo antzekoa den lan bat egin izana eta lan horren gauzatutako zenbatekoa hau dela sorten arabera:*

1. sorta: Aldakonea zentroa: 1.500.000 euro.

Bistan da, horrela, burututako zerbitzuez edo lanez ari direla bai araua bai baldintza agiria, eta kontratazio organoak kontratua burututa egon behar dela ulertzen du hor; errekurtsogilearen ustez, berriz, oraindik aribidean dauden kontratuen barruan burututako zerbitzuak balioetsi behar dira.

Bada, aurkaratutako ebazpenak aipatutako Kontratu Errekurtsoen Administrazio Auzitegi Zentralaren doktrina (TACRCen 60/2011, 194/2012, 503/2015 eta 2/2016 ebazpenak), zeinaren arabera enpresa baten esperientzia ongi balioesteko ez baita egokia burutu gabe dauden kontratuak gauzatzeko egin diren lanak hartzea erreferentzia gisa eta lanak osorik eta kontratatzailearen nahierara egitea eskatzen baita, zehaztu egin du TACRCek ondoren, proportzionaltasun printzipioa kontuan hartuta eta kontrataziorako sarbidea ez oztopatzeko, besteak beste, urriaren 23ko 1147/2020 Ebazpenean, ekainaren 8ko 493/2017 Ebazpenean adierazitakoa errepikatuz:

se acreditarán mediante certificados expedidos o visados por el órgano competente, cuando el destinatario sea una entidad del sector público.

Con base en ello, el punto 14.3 del cuadro de características del PCAP establece que la solvencia técnica o profesional se acreditará de la siguiente forma:

“- Una relación de los principales servicios realizados en los últimos tres años que incluya importe, fechas y entidad contratante, pública o privada, a quien iban destinados los mismos.

- *Las empresas deberán acreditar, mediante certificados expedidos o visados por el órgano competente, cuando el destinatario sea una entidad del sector público o, cuando el destinatario sea un sujeto privado, mediante un certificado expedido por éste o, a falta de este certificado, mediante una declaración del propio empresario, haber ejecutado en los últimos tres años al menos un trabajo cuyo objeto sea similar al del presente contrato y cuyo importe sea al menos el de la siguiente cantidad, según lotes:*

Lote 1: Centro de Aldakonea: 1.500.000 euros”.

Se observa, así, que tanto la norma como el pliego hablan de servicios o trabajos realizados, lo que el órgano de contratación interpreta en el sentido de que el contrato tiene que estar ejecutado, mientras que la recurrente entiende que se tienen que valorar los servicios realizados dentro de contratos que están aún en ejecución.

Pues bien, la doctrina del Tribunal Administrativo Central de Recursos Contractuales (TACRC) a la que se refiere la resolución impugnada (Resoluciones nº 60/2011, 194/2012, 503/2015 y 2/2016), a cuyo tenor no resulta adecuado para valorar correctamente la experiencia de una empresa tomar como referencia los trabajos desarrollados en ejecución de contratos que no hayan concluido todavía, exigiéndose que los trabajos se hayan prestado íntegramente y a satisfacción del contratante, ha sido posteriormente matizada por el TACRC, en atención al principio de proporcionalidad y para no obstaculizar el acceso a la contratación, en resoluciones como la nº 1147/2020, de 23 de octubre, en la que se reproduce lo que ya señaló



en la resolución nº 493/2017, de 8 de junio:

«(...) Auzitegi honek gai horri buruzko iritzia emateko aukera izan du ekainaren 8ko 493/2017 Ebazpenean. Hartan ebatzitako errekurtoaren xedea adjudikazio bat zen, non arribidean eta burutu gabe zeuden zerbitzu batzuetako exekuzio onaren ziurtagiriak onartu baitziren. Honako hau adierazi genuen orduan: "Errekurtsoaren arabera, esperientzia egiaztatze, burututako zerbitzuak baino ezin dira hartu kontuan, eta ez arribidean daudenak". Oro har, zuzena da errekurtoak adierazten duen iritzia, baina proportzionaltasun printzipioak zehaztasun handiagoa eskatzen du, hain zuzen ere kontratazioarako sarbidea ez oztopatzeko. Agiriak honako hau adierazten du: "Azken bost urteetan egin diren izaera bereko edo antzeko zerbitzu edo lan nagusien zerrenda, zenbatekoak, datak eta hartzaile publiko nahiz pribatua adierazita. Kaudimena egiaztatutzat joko da, baldin eta egiaztatzen badu azken bost urteetako batean zerbitzuak edo lanak egin dituela kontratuko prezioaren batez besteko urteroko baten zenbateko berean edo handiagoan. Hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean, organo eskudunak emandako edo ikus-onetsitako ziurtagiri bidez egiaztatuko dira egindako zerbitzuak edo lanak; hartzailea subjektu pribatua denean, berriz, hark emandako ziurtagiri bidez edo, ziurtagiririk ezean, enpresaburuaren adierazpen baten bidez". Argi dago kontratu baten adjudikazio hutsa ez dela esperientzia, eta ildo horretatik jo du JCCAre 5/2006 txostenak. Argi dirudi, halaber, obra kontratu batean hura erabat burutzeak egiaztatuko duela emaitza. Baina, zerbitzu kontratuetan, prestazioa hainbat urtez luzatzen denez, onargarria izan liteke burututako zerbitzuen urtealdiei buruzko exekuzio oneko ziurtagiri bat, agiriaren adierazpenean lekua baitu, nahiz eta kontratuaren hedadura osoa amaitu gabe egon.

Are argiago ikusten da onargarria izan daitekeela kontratu luzagarrietako zerbitzuak burututzat jotzea, hain justu luzatu direla ageri denean, ez baitirudi zentzuzkoa denik luzapen bati uko egitea –zeinak, eskuarki, exekuzio ona eskatzen baitu– kontratuaren epealdi nagusia esperientzia gisa erabili ahal izateko. Onargarria izanik kontratazio pribatuan egindako zerbitzuetako esperientzia ere –berez epeei lotu gabea–, ez dirudi zerbitzu horiek burutzea beharrezkoa denik kontuan hartu ahal daitezkeen, ezta ere. Azkenik, kontratazio organoarekin bat gatoz zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuei buruz egin duen oharrean: kontratu horien iraupena kontuan hartuta, batzuetan hamarkadatan zehar luzatzen baitira, ez litzateke proportzionatua izango iraungitzean soilik balio izatea kaudimena egiaztatze”.

“(…) este Tribunal ha tenido ocasión de pronunciarse sobre esta cuestión en la resolución 493/2017, de 8 de junio, en la que resolvíamos un recurso planteado contra una adjudicación en la que se aceptaron certificados de buena ejecución correspondientes a servicios en ejecución no finalizados. Señalamos entonces: “Considera el recurso que solo pueden ser tenidos en cuenta a efecto de acreditación de la experiencia los servicios ejecutados y no los que están en ejecución. Es correcta, con carácter general, la apreciación que realiza el recurso, pero el principio de proporcionalidad exige una mayor matización, precisamente para no obstaculizar el acceso a la contratación. El pliego señala: “Una relación de los principales servicios o trabajos, de igual o similar naturaleza que los que constituyan el objeto del contrato, realizados en los últimos cinco años, que incluya importe, fechas y destinatario, público o privado, de los mismos. Se considerará acreditada la solvencia si en alguno de los últimos cinco años acredita servicios o trabajos por importe igual o superior a una anualidad media del precio del contrato. Los servicios o trabajos efectuados se acreditarán mediante certificados expedidos o visados por el órgano competente, cuando el destinatario sea una entidad del sector público; cuando el destinatario sea un sujeto privado, mediante un certificado expedido por este o, a falta de este certificado, mediante una declaración del empresario”. Resulta claro que la mera adjudicación de un contrato no constituye experiencia, y es en ese sentido en el que se pronuncia el informe 5/2006 de la JCCA. También parece claro que en un contrato de obra, será su completa finalización lo que acredite el resultado. Pero en los contratos de servicios, en los que la prestación se prolonga a lo largo de diversos años un certificado de buena ejecución referido a anualidades de servicios ya ejecutados aun cuando el contrato no haya finalizado en toda su extensión, pueden resultar admisibles por tener cabida en la expresión del pliego.

Menos duda ofrece la admisibilidad como ejecutados de los servicios en contratos sujetos a prórroga, cuando constan precisamente prorrogados, pues no parece que tuviera sentido renunciar a una prórroga- que habitualmente requiere buena ejecución- para poder utilizar como experiencia el periodo principal del contrato. Tampoco parece que, siendo admisible la experiencia por servicios ejecutados en contratación privada que por sí no está sujeta a plazos, se requiera la finalización de los mismos para poder ser tenida en cuenta. Finalmente, se comparte con el órgano de contratación la observación referida a los contratos de gestión de servicios públicos en los que, por razón de su duración, en ocasiones durante décadas, no resultaría proporcionado que solo pudieran ser acreditativos de la solvencia a su expiración”.



Bada, kasu hartan bezala, Auzitegi honen ustez, aztertzen ari garen honetan ere kontuan hartu behar dira zenbait urtez luzatzen diren kontratuen arabera emandako zerbitzuak, baldin eta enpresa lizitatuak exekuzio onaren ziurtagiria aurkezten badu. Izan ere, nahiz eta ukaezina izan kontratuaren adjudikazio hutsa ez dela esperientzia, egia da, halaber, entitate kontratatzailea SPKLk eta administrazio klausula berezien agiriak berak aipaturako esperientzia egiaztatzen ari dela, baldin eta exekuzio onaren ziurtagiri bat ematen badu kontratua benetan behar bezala gauzatzen ari dela pentsarazteko modua ematen duen zentzuzko denbora baten ondoren».

Pues bien, como en aquél caso, en el que ahora nos ocupa, a juicio de este Tribunal, si deben tomarse en consideración los servicios realizados en virtud de contratos en los que la prestación se prolonga a lo largo de varios años, siempre que la mercantil licitadora aporte el correspondiente certificado de buena ejecución. Y ello en la medida en que, siendo innegable que la mera adjudicación del contrato no constituye experiencia, también lo es que, una vez que por parte de las entidades contratantes se emite el correspondiente certificado de buena ejecución, transcurrido un tiempo razonable para apreciar que efectivamente el contrato se está ejecutando debidamente, se está acreditando la experiencia a la que se refieren la LCSP y el propio PCAP”.

Doktrina hori aplikatuz, beraz, kaudimena egiaztatzeko kontuan har litezke aribidean dauden zerbitzu kontratuak, nahikoa denbora igaro bada kontratista kontratu horiek nola gauzatzen ari den baloratu ahal izateko, eta exekuzio onaren ziurtagirian hala jasota badago.

En aplicación de esta doctrina, por tanto, sí podrían tomarse en consideración, a efectos de acreditar la solvencia, contratos de servicios que estén en ejecución, siempre y cuando haya transcurrido un lapso de tiempo suficiente para que se pueda valorar el modo en que se están ejecutando por parte del contratista, y así se refleje en el correspondiente certificado de buena ejecución.

Hala ere, kasu honetan, errekurtsogileak aurkeztutako dokumentu batek ere ez ditu betetzen baldintza agirietan eskatzen den kaudimen teknika egiaztatuz jotzeko eskatzen diren baldintzak.

Sin embargo, en este caso, ninguno de los documentos aportados por la recurrente cumple los requisitos exigidos para poder tener por acreditada la solvencia técnica exigida por los pliegos.

Chillóngo eta Bartzelonako udalen ziurtagiriek (errekurtsogileak BAT zenbakiko artxibo elektronikoen aurkeztuak) ez dute egiaztatzen azken hiru urteetan antzeko lan bat egin duenik gutxienez 1.500.000 euroko zenbatekoan, azken hiru urteetarako eskatutakoa baino zenbateko txikiagoa duten zerbitzuei buruzkoak baitira. Gainera, kasu batean izan ezik, aurkeztutako ziurtagiriek ez dute adierazten zer partaidetza ehuneko duen OHL SERVICIOS INGESAN SA enpresak ABEE adjudikazioduneari, eta beste batzuek ez dute zehaztu ere egiten enpresa hori ABEE adjudikazioduneko kidea denik, eta ez daude behar bezala sinatuta.

Los certificados de los Ayuntamientos de Chillón y de Barcelona que la recurrente presentó en el archivo electrónico nº UNO no acreditan que haya ejecutado en los últimos tres años un trabajo similar por un importe de al menos 1.500.000 euros, pues se refieren a servicios de importes inferiores al exigido en los últimos tres años. Además, salvo en un caso, los certificados aportados no indican el porcentaje de participación de la empresa OHL SERVICIOS INGESAN S.A. en la UTE adjudicataria, y otros ni siquiera determinan que esa empresa sea integrante de la UTE adjudicataria, ni están debidamente firmados.

Kaudimen teknika egiaztatzeko ezin dira kontuan hartu, ezta ere, OHL SERVICIOS INGESAN SArek eta Madrilgo Erkidegoaren artean sinatutako bi kontratuak, errekurtsogileak zuzenketa fasean aurkeztu zituenak, kontratu

Tampoco se pueden tomar en consideración, a efectos de acreditar la solvencia técnica, los dos contratos suscritos entre OHL SERVICIOS INGESAN S.A. y la Comunidad de Madrid, que la recurrente presentó en fase de subsanación,



horiekin batera ez baita aurkeztu lizitatzaillearen exekuzio onaren ziurtagiririk, eta ez dirudi nahikoa denbora igaro denik kontratista kontratu horiek nola gauzatzen ari den baloratzeko; izan ere, duela gutxi hasi ziren gauzatzen, 2021eko uztailaren leian eta 2022ko maiatzaren leian, hurrenez hurren.

Horregatik guztiagatik, auzitegi honek uste du zuzenbidearen eta baldintza agiriko aurreikuspenen arabera dela errekurtsogilea 1. sortatik kanpo uztea, ez baitu egiaztatu eskatutako kaudimen teknikoko baldintzak betetzen dituenik.

ZORTZIGARREN.- Ez da antzeman fede txarrik edo ausarkeriarik errekurtsua aurkeztean, Auzitegia errekurtsogileari isun bat jartzera eraman dezakeenik, SPKLak 58.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Ondorioz, Kontratazio Alorreko Errekurtsuotarako Foru Auzitegi Administratiboak

ERABAKITZEN DU

Ezetztea GIZATZEN SAK jarritako kontratazio arloko errekurtsu berezia.

Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 59.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Aretoan, erabaki hau jakinarazten den egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

pues no vienen acompañados de ningún certificado de buena ejecución por parte de la licitadora y no parece que haya transcurrido un lapso de tiempo suficiente para que se pueda valorar el modo en que se están ejecutando por parte de la contratista, pues su ejecución se inició en fechas recientes, el 1 de julio de 2021 y el 1 de mayo de 2022, respectivamente.

Por todo ello, este Tribunal considera que la exclusión de la recurrente del lote 1 es conforme a Derecho y a las previsiones del propio pliego, pues no ha acreditado el cumplimiento de los requisitos de solvencia técnica exigidos.

OCTAVO.- No se aprecia en la interposición del recurso la existencia de mala fe o de temeridad que mueva al Tribunal a imponer a la recurrente una multa en los términos previstos en el artículo 58.2 LCSP.

En su virtud, este Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales

ACUERDA

Desestimar el recurso especial en materia de contratación interpuesto por GIZATZEN, S.A.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 59.1 LCSP, contra esta resolución cabe interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contado a partir del día siguiente al de su notificación.

Donostia, 2022ko azaroaren 10a / San Sebastián, 10 de noviembre de 2022.